
ARTZA ZURIA

P.Y.S.B.E. Donostia'n bakallau-arrantzarako 1927'garrenean sortutako konpañia bat zan. Berreun urtez Terranoba'ra joanik gabe zeuden ego-aldeko euskaldunak, 1713'ko Utrech'ko Itunaren debekua zala bide.

Bi barkuekin eman zion asiera bere lanari konpañi onek. 1.600 toneladako ontziak. Arrantzarako oso aundiak eta bakarka ekiten zuten arrasteko sareekin. Nere aita izan zan lenengo kapitana eta orregaitik dakit konpañi onen berri. 1927'an sortu eta 1973'garrenean kiebra jo, amazapi ontzi, 62 gizaseme ontziko, uraren gañean zituztela.

Groenlandi eta inguru artako Spitzberg'eko ugartee-tan ere ibilli oi ziran. Goiz argi batean lenengo Pillotua eta beste iru lagun, txalupa artu eta lurreratu ziran ikusmira. Txalupa ertzean lotu eta barrura abiatu ziran pozik eta alai muñorik muño. Lur eta izotz zati galantak, uda izan arren, Euskalerrian ez bezala.

Alako batean, ara nun agertzen zaien, elur artetik, artza zuri aundi bat, euren bidera zetorrena. Ekin diote laurok arin-aringa txaloparen billa.

Madarikatua, maria beera jetxita zegoen berrogei metro. Eldu txalopari eta ekin diote lorrean uraren billa. Ez nai bezin bizkor. Artza zetorren zanga ta zanga, lau ankan, euron billa. Mutillak estu eta larri. Belarrietan zuten artzaren arnasa. Elduko ote dira itxasora artza baño lenago?

—Gaitz-erdi! Garraxi egin zuan kapitanak barkutik, txalopak ura ikutu zuenean.

Baña, artza ez zegoen orrela bere lanari usteko, eta txopalekin batera salto egin zuen uretara. Orixe izan zan artzaren okerra. Barkutik tiroz ilko zuten eta barrura jaso. 800 kilo aragi eta ezur. Aren larrua Pasaia'n egon zan esegita jendearen miragarri.

—Gaizki pasatu al zenduten? Galdetu nion pillotuari.

—Kontuan artu. Une batean egon nintzan, txalopa irauli eta geu barruan gordetzeko agindua emateko ere!

—Eta, maria-goran, zer?

ANES ARRINDA

EUSKARA BESAMOTZ

Nork ankerki
euskara zaarri
besoa ebaki?
Zertarako, zergaitik
gorrotoa euskarari?

Gure mintzaira
itolarrian,
belarri-motzak
arrokerian

Euskaldun zaren orrek
oiukatu gure izkuntzan
euskara jauzika enparantzan

Garrasi egin
euskara osatu dadin"
Besamotza izateaz
lotsatu barik,
euskaldunon mintzairaz
arrotasuna adierazi

Ezin dogu gure mintzaira
odoluzten utzi
ez orixe

Euskaldun denok
bateginik
lurbira guztikook
abots batez

Izkuntza goraturik
arnasberiturik
udaberriko lore
lirain biurturik

Ikas bezate
erdaldun barbaroek
badela, badela
izkuntza ederrik
izkuntza lirainik
eztia bezain goxorik

Entzun bezate
euskaldunon elea
euskara dela

KAI A. ETXABARRIA